

IRIZPEN 22/07

Maite Alonso, presidentea
Begoña Cabria
Aitor Idigoras
Ainara Ibañez
Lierni Lizaso
Mari Tere Ojanguren
Eduardo Ubieta
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2022ko uztailaren 29ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Dekretu proiektua zeinaren bidez hirugarrenez aldatzen baita maiatzaren 19ko 69/2015 Dekretua, EAEko ikastetxe publikoetako ikasleen eskola-garraioari –hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak finantzatutakoa– buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

69/2015 Dekretuak, maiatzaren 19koak, hezkuntza-zerbitzu osagarri hori emateko eta baliatzeko modalitateak jasotzen ditu ikastetxe publikoetako ikasleentzat, hezkuntza-administrazioak antolatutako edo finantzatutako eskola-garraioa eskuratzeko eta baliatzeko kasuak eta baldintzak.

Dekretu honek bi aldaketa izan ditu: azaroaren 26ko 186/2019 Dekretua eta irailaren 28ko 217/2021 Dekretua.

186/2019 Dekretuak aldatu egin zuen eskola-garraioari buruzko Dekretua, haren aplikazio-eremuan sartzeko bai Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak bai Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak.

Ondoren, irailaren 28ko 217/2021 Dekretuak eguneratu egin zituen eskola-garraiorako eskubidea izateko bete beharreko baldintzak, bai eta baldintzok Oinarrizko Lanbide Heziketako ikasleak onartzeko prozedurara egokitu ere. Era berean, desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsozialen bati lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eskatzen zitzaien distantziaren baldintza aldatu zuen, ingurune eta baliabide profesional espezializatuen berariazko beharrak bermatzeko. Horrez gain, ikaslearen etxebizitzaren eta ikastetxearen arteko distantzia neurtzeko irizpide uniformeak ezarri zuten, berdintasunaren printzipioa bermatzeko.

Zaintza partekatuko kasuetan, 217/2021 Dekretuak bigarren gurasoaren etxebizitzarako eskola-garraioa izateko eskubidea aitortu zuen, ikasleak distantziaren baldintza betetz gero.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 82. artikulua ezartzen du administrazioek lagundu egin behar dutela landa-eremuetan bizi diren ikasleek hezkuntza-sisteman jarrai dezaten, oinarritzko irakaskuntzatik haratago; era berean, lagundu egin behar dute landa-eremuko ikasleen eskolatzea areagotu dadin, derrigorrezkoak ez diren irakaskuntzetan.

II. EDUKIA

Dekretu-proiektu honek bost artikulua eta azken xedapen bat ditu:

Artikuluek honela aldatzen dute 69/2015 Dekretua:

Lehenengo artikulua: 1. artikuluko 1. paragrafoa aldatzen du, Batxilergoko eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetako etapak barne.

Bigarren artikulua: 4. paragrafoa gehitzen zaio 2. artikuluari (eskola-garraioko modalitateak), eta adierazten du Batxilergoan eta Erdi Mailako Heziketa-zikloetan behin-behineko baimena eman ahal izango dela eskola-garraioa erabiltzeko, 6.2.f) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Hirugarren artikulua: 5. artikulua 1. paragrafoaren a) eta b) letrak aldatzen ditu: b) idatz-zatian, Oinarritzko Lanbide Heziketarako baldintzak aldatuz.

Laugarren artikulua: f) letra gehitzen da, Batxilergoan eta Erdi Mailako Heziketa Zikloetan matrikulatutako ikasleei garraioa erabiltzeko behin-behineko baimena emateko baldintzak jasotzen dituen.

Bosgarren artikulua. 7. artikulua 3. atalaren 2. paragrafoa aldatzen du, edukia artikuluen zenbaki-aldaketetara egokitzeko.

Azken Xedapenak dekretu hau indarrean noiz jarriko den zehazten du.

III. BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

Kontseiluak adierazi nahi du zein zailtasun izan diren sektoreen parte-hartzea sustatzeko, arau-proiektua behar bezala aztertzeko eta ekarpen egokiak egiteko, gauden datak direla eta.

Dekretu-proiektu berria une batean aurkeztu da, zeinean euskal hezkuntzaren etorkizunari buruzko akordio politiko zabala abiapuntu hartuta, Hezkuntzari buruzko Lege berri bat arautu gabe dagoen oraindik.

Behin Hezkuntzari buruzko Lege hori onartuta, eta hezkuntzako euskal zerbitzu publikoa eratuta, eskola-garraioko zerbitzu hori eskuratzeko baldintzak berrikusi beharko dira zerbitzua osatzen duten ikastetxe guztietan.

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek 69/2015 Dekretuari buruzko irizpena eman zuen 14/07 Irizpenean. Era berean, 186/2019 Dekretuaz 19/07 Irizpenean eta 217/2021 Dekretuaz 21/10 Irizpenean txostenak egin zituen.

Eskola-garraioa hezkuntza-eskubidearen erabilera baldintzatzen duen faktore bat da, ekitate-printzipioetatik abiatuta (hezkuntzaren bidez nortasuna erabat garatzeko aukera-berdintasuna) eta inklusio-printzipioetatik abiatuta (edozein diskriminazio gainditzen lagunduko duten eskubide- eta aukera-berdintasuna eta hezkuntzarako irisgarritasun unibertsala), desberdintasun pertsonal, kultural, ekonomiko eta sozialen konpentsatzaile gisa jarduten duena, arreta berezia jarriz edozein desgaitasunetatik eratorritakoei.

Horregatik, helburu horiek lortzen laguntzen duen ekimen hori positibotzat jotzen dugu; izan ere, bizilekua edozein dela ere, Batxilergoko modalitateak edo hain ohikoak ez diren Lanbide Heziketako espezialitateak egon daitezke, eta, beraz, komeni da ikasleen lekualdaketa erraztea.

Hala ere, jarraian, bigarren artikuluari buruzko ohar batzuk jaso ditugu:

Artikulu horrek paragrafo berri bat gehitzen dio 2. artikuluari, Batxilergoan eta Erdi Mailako Lanbide Heziketako zikloetan baldintza jakin batzuetan eskola-garraioa erabiltzeko behin-behineko baimena emateko aukera ezartzen duena. Baimen hori eskuratzeko baldintzak 6.2 artikulua f) letra berrian ezartzen dira.



Batzorde Iraunkorrek proposatu zuen, 19/07 Irizpenean, Batxilergoko ikasleei eskola-garraioa baimentzea, baldin eta erreferentziako ikastetxea beren bizilekutik 4 km baino urrunago bazegoen, plaza libreak zeudenean.

Horregatik, egoki deritzogu arautzea eta, gainera, baldintza berberetan Lanbide Heziketako erdi-mailako mailetako ikasleei zabaltea.

Hala ere, garraiorako banakako laguntzak ezin direnez etapa horietako ikasleetara zabaldu, ez baitute eskola-garraiorako eskubiderik aitortuta, ikasle horientzako laguntzak edo diru-laguntzak gaitu beharko liratekeela uste dugu, zehazten diren baldintzetan.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2022ko uztailaren 29an

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURUA